

Kultura

Urtarrilaren 27ko Eider Rodriguezen berbaldiagaz abiatuko dute Hitzez eta Ahotsez ekimena, itsasoa gaitzat hartuta > 12



Zoladura ekologikoa erabiliko dute Durangon eta Iurretan

Zoladurak trafikoaren kutsadura xurgatzeko balio duela uste dute sortzaileek, eta, gainera, produktuaren %80 hondakinak berrerabiltzaile landu dute

Zoladura ekologikoaren esperimentazioan sakondu dute IK4-Azterlanek, eta Probisa eta Prefabricados Alberdi enpresek. Durango eta Iurretan prest agertu dira produktu berriagaz probak egiteko. Iurretan, Zubiaurre kalean ipini dute, lurpeko kontainerren atzean. Durangon, Pablo Pedro Astarloa kalean, Jesuitak ikastetxearen parean dagoen espaloi zabalenean ipiniko dute. Zoladura honek trafikoaren kutsadura xurgatzeko balio duela uste dute, eta produktuaren %80 hondakinak berrerabiltzaile landu dute. > 8

Bizkaian ere, txotx

Bascook jatetxeko Altor Elizegi sukaldariak Zornotzako Uxarte sagardotegian zabaldu du Bizkaiko sagardogileen txotx garaia. > 3



Lehior Elorriaga

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

Eitua Industriagunea, 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
946 824 550 · alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



Elorrio > 6

Estatu mailan aitzindaria da adinekoentzako zentroa

Zaldibar > 7

Txinurriak sortu dute, Zaldibarko gazteen elkargunea

Izurtza > 6

Arbizolea urbanizatzen eta bidegorria egiten hasi dira

Durangaldea > 8

Kirol guneetako erabiltzaile kopurua hazi da urte berriagaz

Herririk herri

JAEDen zozketarako iaz baino 4.500 txartel gehiago saldu dituzte

Maria Teresa Berrizbeitiak jaso du zozketako autoa

DURANGO Markel Onaindia JAEDek saldutako txartel kopuruak gora egin du aurtengo edizioan. 54.700 txartel saldu dituzte errifarako, iazko Gabonetan baino 4.500 gehiago, eta inprimatuta zeuzkaten 55.000 txartelatik 300 bakarrik geratu dira jabe barik. Beraz, emaitza ona eduki dute, eta, horregatik, "oso pozik" agertu zen astelehenean ongintza elkarteke Eugenio Briñas, autoa emateko Iurretan eginiko ekitaldian. Egunero salmenta datu onak eduki dituztela esan zuen, eta Durangoko Azokaren egunetan kanpotik dato-

zen gazteek ere txartelak erosten dituztela nabarmendu zuen.

Oraindik dozena bat sari emateko dauzkate JAEDekoek, irabazlea noiz agertuko zain. Saridun zenbaki guztien zerrenda www.jaed.es webgunean daukate, eta zortedunek martxoaren 31ra arteko epea daukate horiek eskuratzeko. 946 201 468 telefonora deitu beharko dute kontaktuan ipintzeko.

Autoa, Iurretara

Sari nagusia eman dute dagoneko. Iurretako Maria Teresa Berrizbeitiak jaso du Citroen C4



Berrizbeiti eta Briñas, autoa alboan dutela.

Cactus ibilgailua, Iurretako kontzesionarioan egin duten ekitaldian. Polita iruditu zaio autoa Berrizbeitiari. Azaldu du urtero parte hartzen duela ongintzako zozketan, eta aurrean lau txartel erosi dituela.

Boluntario askoren laguntzagaz ipintzen du Andra Mari-ko postua JAED elkarteak, eta arazo ekonomikoak dauzkaten familiei jatekoa emateko erabiltzen du zozketa benefikoan ateratako dirua.

39 urteko gizon bat atxilotu dute, neska-laguna jotzea egotzita

DURANGO M.O.

Joan zen zapatuan, beste indarkeria sexista kasu bat jazo zen Durangon. Ertzaintzak azaldu duenez, 22:30 aldera bere bikotekidea jo zuen 39 urteko gizonak, eta udaltzainek atxilotu egin zuten. Gero, emakumeak ez zuen salaketa ipini gura izan, baina Ertzaintzaren arabera, kalean gertatu zenez, atestatua egin dute. Horregatik, epaileran aurretik pasa beharko da gizona.

Martitzenean, elkarretartzea egin zuten Andra Marian, mugimendu feministak deituta, gertatutakoa salatzen. Udalak eraso gaitzetsi du, eta emakumeari babesa adierazi dio.

EYP-ren topaketetan izango da Aritz Labrador

European Youth Parliamenteko kide da zornotzarra

DURANGO Martxel Zubia Bihar, urtarrilaren 24an eta, igandean, urtarrilaren 25ean, European Youth Parliament (EYP) erakundearen topaketak izango dira Bilbon. Gazteengan erantzukizun soziala eta hiritar-

tasun europarra bultzatzea du helburu erakundeak.

Aritz Labrador, Durango Jesuitak ikastetxeko batxilergoko 2. mailako ikaslea, bertan izango da, iaz Pragan izan zuen partaidetza onaren ondorioz.



Aritz Labrador, European Youth Parliamenteko topaketa batean.

Etorkinentzako hamaikagarren euskara ikastaroa

DURANGO M.Z.

Etorkinentzako euskara ikastaroak 60 orduko iraupena izango du aurrean, eta 30 egunetan banatuta egongo da; egun bakoitzean eskola ordu bi emango dira. Asteazkenetan, astelehenean, astearteetan eta asteazkenetan, 19:00etatik 21:00etara. Lehenengo eguna otsailaren 23a izango da, astelehena, eta azkenengo eguna maiatzaren 13a.

Ikastaroan izena emateko azken eguna otsailaren 13a izango da. Udaleko Euskara Sailak Pinondo Etxean duen bulegora joan behar da matrikula egiteko. Ikastaroan Aisa programaren lehenengo liburuak eta irudiz osaturiko hitzegi bat erabiliko dituzte; azken hori doan emango zaie ikasleei.

Kulturgintzaz hausnartuko dute aurtengo Topaldian

Durangon ospatuko da Topaldia, urtarrilaren 29an

DURANGO M.O.

Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta, eragile euskaltzaleek kulturgintzan daukaten funtzioaz hausnartuko dute urtarrilaren 29an. Topaldia ekimenaren hamabigarren edizioa izango da, Durangon ospatuko da, eta 09:00etatik aurrera goizez zein arratsaldean egongo dira berbaldiak. Parte hartu gura dutenentzako izen-ematea urtarrilaren 26an amaituko da, eta www.topaldia.wordpress.com webgunean egin beharko dute.

Topaguneak bidalitako prentsa oharrean dioenez, "hizkuntza komunitatearen garapenerako tresna ezinbestekoa da kulturgintza". Horregatik, euskaltzaleen mugimenduak hasieratik lehentasun gisa hartu duela azaldu du. Azken hiru

hamarkadetan ekitaldi ugari antolatu izan direla adierazi du, baina denbora horretan hainbat baldintza aldatu direla ere bai. Horregatik, hausnarketa berritzeko beharra ikusten dute Topagunekoek.

Parte hartu gura dutenentzako izen-ematea urtarrilaren 29an amaituko da

Hamar berbaldi antolatu dituzte, eta Igor Elortza bertsolariak, Lorea Agirre Jakin aldizkariako zuzendariak eta Hekimen elkarteke Alberto Barandiaranek parte hartuko dute, besteak beste.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko urtarrilaren 23a,
13. urtea - 574. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso
Armendia, Amaia Huarte Basabe,
Itxaso Altuna Marina.
Erredakzioa: Aitziber Basauri
Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao, Markel
Onaindia Txabarri, Amaia Ugalde
Begoña eta Martxel Zubia Arrinda.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.



Bizkaiko sagardo ekoizleak Aitor Elizegiz. Lehior Elorriaga



Txalaparta musikak girotu zuen ekitaldia. Lehior Elorriaga

Bizkaiko sagardo garaia hasi dute Zornotzako Uxarte sagardotegian

Bascook jatetzeko Aitor Elizegi sukaldariak egin du lehenengo txotxa

ZORNOTZA J. Derteano Bizkaiko Sagardogileen Elkar-
tea osatzen duten hamaika upa-
tegiek aurtengo txotx garaia
abiatzeko ekitaldia egin zuten
eguztanean, Zornotzako Uxarte
sagardotegian. Aurtengo
ekoizpena 150.000 litrokoa izan
da, eta den-dena Bizkaiko sagra-
ragaz egindakoa dela nabar-
menduz zuten.

Bascook jatetzeko Aitor Eli-
zegi sukaldaria izango da aur-
tengo Bizkaiko sagardoaren
enbaxadorea, eta berea izan
zen lehenengo txotxa. Bizkaiko
sukaldaritzan eta sagardoan si-
nesten duela azaldu, eta sagardo
hornitzaileek erakusten duten
gertutatasuna azpimarratu
zuen: “Zuen ondoan egongo naiz
behar duzuenarako”.

Uxarte sagardogintzako buru
eta Bizkaiko Sagardogileen El-
karteko presidente Jose Antonio
Zamalloaren esanetan, iaz uste
zutena baino %30 sagar gutxia-
go jaso zuten, “neguko hotz falta-
gatik”, baina upategietara heldu
den sagarra “oso osasuntsua
izan da, eta hori kalitatearen
sinonimo da botilan”. Ondoren,
aurtengo sagardoaren ezauga-

rriak azaldu zituen: “Kolare hori
bizia du, batzuetan tonu ber-
deekin. Freskoa eta usaintsua
da; ahoan arina, baina ibilbide
luzekoa, zerbitzatzean apar fina
duena, eta erraz edate-
koa”. Sagarra “mimatu
eta zaintzen” duten
ekoizle txikien la-
na goraiatu zuen:
“Helburua da kali-
tatezko markadun
sagardoa lortzea,
merkatuan modu lehia-
korrean kokatzea ahalbide-
tuko diguna. Kalitate handiko pro-
duktua dugunez, lan egin deza-
gun jendeak gero eta gehiago
ezagutu gaitzan”.

David Latxaga herriko alka-
tea eta Andoni Agirrebeitia al-
kateordea ekitaldian izan ziren,
eta baita Irene Pardo Aldundiko
Nekazaritza Saileko diputatua,



“Aurtengo sagardoa freskoa, arina eta usaintsua da”

Jose Antonio Zamalloa

Jaurlearitza Nekazaritza Sai-
leko kalitate zuzendaria den
Peli Manterola eta Gipuzkoako
Sagardogileen Elkarteko presi-
dente Arantza Eguzkiza ere.

Kontsumo iraunkorrari buruz aritu dira ikasleak

Ondorioak David Latxaga alkateari azaldu dizkiete



David Latxaga alkatea ikasleekin.

ZORNOTZA J.D.

Eskola Agenda 21 programaren
barruan, hemezortzi ikasleek
kontsumo iraunkorraren gaine-
ko hausnarketa egin dute. Ber-
tan ateratako ondorioak David
Latxaga alkateari azaldu zizkie-
ten joan zen astean, udaletxean
izandako batzarrean. Urritxe
institutuko, Larrea, El Carmelo
eta Karmengo Ama ikastetxee-
tako, eta Andra Mari eta Laua-
xeta ikastoletako gazteek osatu
zuten taldea. Hainbat gai jorra-
tu zituzten birziklapenaren eta
berrerabileraren inguruan; esa-
terako, hondakin organikoak ja-
sotzeko ipinitako edukiontzien
inguruan herritarrek duten
iritzia jasotzeko galdetegi bat
prestatu dute, eta gauzatze-
ko konpromisoa hartu dute.

Kiwi sortak piztu zuen ikusmina Errematan

GARAI Markel Onaindia

Joan zen zapatuan, San Anton
egunez, dozenaka lagun batu zi-
ren Garaiko Elizabarrin, elkar-
tasun eta jai giroko ekitaldian

ondo pasatzeko. Baserritarrek
32 produktu sorta eraman zituz-
ten, eta horien alde nork eskain-
tza handiagoa egin ibili ziren.
Jasotako 1.100 euroak elizako
itoginak konpontzeko eta Cari-
tasi laguntzeko izango dira.

Lazaro Milikua izan zen en-
kantearen gidaria, eta, azaldu
duenez, kiwi sorta batek piztu
zuen ikusmin handiena.



Lazaro Milikuak egin zituen gidari lanak enkantean. Ainara Petite Madariaga

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

ur tiaga
Proiektu eta Erreformak, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZI, BEROGAILU,
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENEA

Solaguren kalea, 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374
E-maila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADINO

Arrike
liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

“Gure roletik irteteko, txikitatik zer paper ezarri diguten jakin behar dugu”

Ion Fernandez psikologo eta terapeutak (Iurreta, 1988) ikastaroa eskainiko du



IURRETA Amaia Ugalde ‘Amaren hitzaren boterea’ ikastaroa emango du, otsailaren 2an hasita, Ion Fernandez psikologoak. Norbere izaeraren eraikuntzan familian entzundako mezuek duten garrantziaz jardun du elkarrizketan. Anderebide elkarteak antolatutako ikastaroan lau eguneko sakonduko dute gaiak.

Zer botere dute amaren hitzek?

Denok daukagu rol bat gure izaeran txertatuta. Bat arduratsua izan daiteke, beste bat parrandazalea... Etiketa horiek gudan duten eragina aztertzen nabile-

la, Laura Gutmanen *El poder del discurso materno* liburua topatu nuen. Gutman familia-bitartekari eta -terapeuta da, eta, liburuan, barneratuta ditugun rolen jatorriari buruz berba egiten du; familian daude erroak. Eta familian, ekintza eta emozioei izena jartzen dien lehen pertsona ama da. Liburuak gauza asko argitu zizkidan: ikusi nuen oso baliagarria dela txikitatik ipini dizkiguten etiketak ezagutzea. Amek esan digute, euren buruko eskemaren arabera, zer den ona eta zer txarra, eta gure jokabide batzuen aurrean erantzun jakin bat izan dute. Horrek guztiak gure izaera eraikitzen du.

Aitek ere izango dute zeresana, ezta?

Hori da, familiako diskurtsoari buruz ere berba egin daiteke. Historikoki egia da ama izan dela kontzeptuak izendatzen nagusi, bizitzako lehenengo urteetan batez ere, umeak oraindik emozioak izendatzen ez dakienean. Orain gauzak aldatzen dabilta, eta aitek gero eta partaidetza handiagoa dute hasierako urteetan; eta hurrengo urteetan zer esanik ez.

Umetako mezu horiek garrantzia dute. Adibiderik?

Bai. Esaterako, ama gaixo izan duen ume bat ama zaintzen impli-

katzen bada, txikitatik entzungo ditu etxean ume arduratsua dela, asko laguntzen duela eta horrelakoak. Orduan, ume horrek mezu horiek barneratuko ditu, eta nagusitan ere hori pentsatzen jarraituko du: “Arduratsua naiz, besteak zaintzen ditut, hori egitean ondo sentitzen naiz, eta maite naute horrela jokatzeko”. Hori pentsatzen duenez, jokabideak errepikatuko ditu; baina, agian, inork ez dio galde-tu ea behar ote duen baten batek bera zaintzea, eta hori ere bere premia bat da.

Rolak barneratuta badauzkagu, ez da erraza izango horietaz kontziente izatea.

Horrela da; azken batean, sentitzen dugu rol horren bidez maitatzen eta onartzen gaituztela besteek. Noizean behin, rol horretatik ateratzeko beharra izango dugu, eta horregatik da garrantzitsua familian zer paper jokatu dugun jakitea. Hori jakinda, ulertuko dugu rol horrek familian ondo funtzionatu duela, eta rola eroso dela guretzat, arauak dakizkigulako; zelan jokatu eta zelan ez. Baina egoera batzuen aurrean rol horretatik irten beharko dugu, eta jakin behar dugu horrek ez gaituela hondamendira eramango.

Batzuetan beharrezkoa da roletik irtetea?

Batzuetan sentitu egiten da premia hori. Familiako *bakartiak*, adibidez: demagun pertsona independentea izan dela, beti kanpotik ibili dena. Halako batean, bere gurasoren bat hiltzen bada,

pertsona horrek dolua pasatzeko familiaren babesa beharko du. Orduan, erabaki beharko du independente rolean jarraitu, ala sentimenduak kudeatzeko besteengana hurreratu eta dolua pasatu. Horrelako kasuetan konturatzen zara benetan paper bat eduki duzula. Zure berezko gaitasunak baino rola ezarritakoak garatu dituzu.

Ikastaroa edonorentzat izan daiteke interesgarria. Gurasoentzat, agian, gehiago?

Motibazio bikoitza izango dute. Amaren diskurtsoak eurengan zelan eragin duen konturatuko dira; eta, horren kontzientzia hartuta, euren seme-alabei bideratutako diskurtsoen kontzientzia hartuko dute.

Seme-alabei bideratutako diskurtsoan badago ezinbesteko gomendiorik?

Osasuntsuena gure mugak ezagutzea da, umeen pertsonalitatea onartu, eta gure joerak itsuki ez ezartzeko. Jo dezagun ahuldadea ez dugula ondo asimilatzen, eta umea eskolatik negarrez irteten dela askotan. Negarrik ez egiteko eta ahazteko esan ahal diogu, gertatu denari garrantzia kenduta. Agian, gure gurasoek gugaz horrelako jarrerak izan zituzten, eta errepikatu egiten ditugu. Horren kontzientzia hartzen badugu, gertatu dena dela-eta ulerkor izan gaitezke umeagaz. Guretzat mingarria dena saihesteko tentazioa izan arren, umeari entzun egin behar diogu, premia hori duelako. Eta sentitzen duenari garrantzia eman behar diogu.

Lekualdaketak hasi dituzte Belakortu eta Salaverria enpresek

Mañariku auzoan eta Arriandin dauzkaten pabiloietara mugitzen hasi dira

IURRETA A.U.

Iurretako herrigunean urte asko daramatzate Belakortu zerrategiak eta Santiago Salaverria automoziozko lantegiak. Enpresa bietako lurrak birkalifikatu egin zituzten Iurretako Udalak, eta, be-

raz, herrigunea utzi behar izan dute. Pabiloi berriak eraikita dauzkate, Belakortu Mañariku auzoan, eta Salaverriak Arriandin. Orain, apurka-apurka, enpresetako makinak lekuz aldatzen hasi dira.

Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak azaldu duenez, lekualdaketek bere zailtasuna izango dute: “Kontuan eduki behar da produkzioa gelditu barik aldatuko direla tokiz”. Enpresak Iurretan mantentzeari garrantzia eman dio alkateak.

Etorkizunean, zer?

Bideondon, Belakortuko lursailen %40 inguru udalarena da, eta zerrategia lekuz aldatu, eta eraikina bota eta gero, bertan urbanizazio proiektu bat egiteko asmoa dute, lau etxebizitza blokekoa.

Salaverriako lursaila, aldiz, banku batena da, eta udalean oraindik ez dakite lurrekiko zer asmo izango duen: “Gure eginkizuna jarraipena egitea izango da”, esan du Totorikaguena.



Belakortu zerrategia, Bideondon.

Askotariko musika estilo gauak gaztetxean

Adibidez, ska eta rock gauak antolatuko dituzte

ATXONDO Joseba Derteano

Aurrerantzean, Atxondoko gaztetxeak, askotariko musika estiloak oinarri hartuta, musika gauak antolatuko ditu hilean behin edo gehiagotan. Lehenengo musika gaua otsailaren 27an izango da, barikua, 22:30etik aurrera, eta stoner-rock musikari eskainitako diote. Momentuz, 2011n Gernikan sortu zen Backbone taldea lotu dute, baina talde gehiago ekartzea da asmoa.

Martxoaren 7an, berriz, ska musika izango da protagonista, eta, besteak beste, Bordeleko (Frantzia) Resaka Sonora taldeak zuzeneko eskainiko du. Martxoko beste gau batean, emakumeek osatutako musika taldeak batu gura dituzte. Oraindik ez dute emanaldi horretarako egunik finkatu, baina

Algorta-Bilboko Octopussys taldeak baieztatu du etorriko dela.

Eskaera asko jaso dituzte

Sare sozialen bidez 45 talde inguruk jakinarazi dute Atxondoko gaztetxean jotzeko prestutasuna. Horregaz batera, gaztetxeako kideek bazuten gogoia, ohiko punk musikaz gainera, bestelako estiloetako kontzertuak ere antolatzeko. Horrela, bi gertaera horrek elkartuta, estilo askotako musika gauak antolatzea erabaki zuten.

Otsailaren 27an Gernikako Backbone talde gazteak zuzeneko eskainiko du Atxondoko gaztetxean

JOLASTOKIAK
0-2 URTE

2 URTE

JANTOKIA

PSIKOMOTRIZITATE GELA

4 GELA 0 URTE
3 GELA URTE 1
3 GELA URTE 2

INSTALAZIO
+
METODOLOGIA BERRITZAILEAK

ZENTZUMEN GUZTIEN ESTIMULAZIOA
HAURRENTZAKO MASAJEA
MUSIKARA GERTURATZEA
INGELESA 12 HILABETETIK
JOLAS HEURISTIKOA

ZABALIK


Irakasleon Kooperatiba
San Antonio Santa Rita Ikastetxea

ZATUZ EZAGUTZERA!!

GELAK

Euskoadi
2010

94 601 47 74 / **94 601 41 41**
www.sanantonio-santarita.com / ikastetxea@santarita.com



Estatu mailan aitzindari da Elorrioko adinekoentzako laguntza zentroa

Zentroa bisitatu du Pilar Ardanza diputatuak

ELORRIO Markel Onaindia Estatu mailan aitzindari da Elorrioko adinekoentzako laguntza zentroa. Izan ere, Libera-Ger izeneko sistema ezarri duen lehenengo zentro publikoa da; horren bidez, adinekoak lotzeko edo eusteko neurriak gutxituko dituzte. Lokarriak eta oheko gerrikoak erabili ohi dituzte zentroetako beharginek adinekoek laguntzeko, eta Elorrion horiek gutxiago erabiltzeko protokoloak ipini dituzte mar-

txan. Gainera, pausoak ematen jarraitzen dute, eta Libera-Ger arautegiaren hirugarren faseko ziurtagiria jaso berri dute.

Aldundiak prentsa ohar bidez azaldu duenez, Libera-Ger metodoa ondo ikusia dago medikuen artean.

Ardanzaren bisita

Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du laguntza zentroa, eta bertatik bultzatu dute Libera-Ger metodoa. Hori dela-eta,



Ardanza diputatua, eguaztenean, Elorrioko zentroan.

Pilar Ardanza Gizarte Ekintzako foru diputatuak Elorrioko zentroa bisitatu zuen eguaztenean. Bertako beharginak zo-

riondu zituen sistema ezartzearen, eta erabiltzaileak agurtzeko ere aprobetxatu zuen bisita. 64 plaza dauzka egoitzak.

Lan-poltsa osatuko dute brigadarako

ELORRIO M.O.

Udal brigadarako eta garbiketa zerbitzurako lan-poltsak osatuko ditu Elorrioko Udalak. Helburua da oposaketa bidez sortzea poltsa hori, gero aldi baterako kontratazioak egiteko. Interesa daukatenek otsailaren 2ra arte edukiko dute prozesuan parte hartzeko eskaera egiteko aukera. Hautagaiek lau azterketa egingo dituzte.

Brigadakoaren lana, hiri altzariak instalatzea eta parkeak garbitzea izango da, adibidez. Garbitzailearena, ostera, lorategiak, kaleak eta estolderia garbitzea izango da.

Nagusientzat, ez jausteko prebentzio ikastaroa

MAÑARIA M.O.

Amankomunazgoaren eskutik, herriko nagusientzako ikastaro bat garatuko dute Mañarian. Hain zuzen ere, erorketak direla-eta, ez jausteko prebentzio ikastaroa izango da. Beraz, kalean seguru eta konfiantzaz ibiltzeko gomendioak emango dizkiete nagusiei.

Otsailaren 4an hasiko da zikloa, eta eguaztenean batuko dira martxoaren 25era arte

Otsailaren 4an hasiko da zikloa, eta eguaztenean batuko dira martxoaren 25era arte. 17:45etik 18:45era bitartean egingo dituzte saioak jubilatuen etxean, antolatzaileek azaldu dutenez. Doako ikastaroa izango da, eta parte hartu gura dutenek jubilatuen etxean eman behar dute izena.

Joan zen astean hasi zituzten Arbizolea inguruko urbanizazio lanak

Urbanizazio lanen ostean, bidegorri bat ere egingo dute errekaaren aldetik

IZURTZA Joseba Derteano

Joan zen astelehenetik hainbat langile Arbizolea industriagune inguruko urbanizazio lanak egiten dabilta. Urbanizazio lan horiekin batera oinezkoentzako zein bizikletentzako bidegorria ere egingo dute; errekaaren aldetik joango da, Etxano auzorantzoan zubira heldu arte; zubitik aurrera eskumaldekik jarraituko du Arbere enpresa ingururaino.

Egun hauetan hainbat lan

egin dituzte langileek. Esate baterako, zubiaren ostean zegoen harritzko horma zati bat bota dute, eta espazio erabilgarria irabazi dute; orain, zorua zementuz eta asfaltoz lautzen dabilta.

Toki horretatik metro gutxira, Etxano auzorako bidean –Arbere enpresaren ondo-ondoan– gertatutako lur-jausia konpontzen ere ibili dira. Inguru garbitu ostean, bidearen ondoan burdinazko egitura sendo bat egonkortu dute

lurrean; ondoren, besteak beste, hormigoiaz beteko dute gune hori, egonkor geratu dadin. Gainera, inguru horretan bidea estutu egiten da, eta pibote batzuk egokituko dituzte, errepidea eta bidegorria banatuko dituen.

Udalaren eta industriaguneko enpresen arteko akordioaren bidez, lurralde udalari utzi zizkieten, baina Arbizoleako enpresak egin ziren lanetako gastu osoaren kargu.



Zubiaren ostean zegoen harresi zati bat bota, eta espazio zabalagoa irabazi dute.

Gaur hitzaldia eskainiko du Asier Etxenike soziologoak

OTXANDIO J.D.

Otxandioko Udaleko Giza Eskubideen Batzordea hainbat ekitaldi antolatzen dabil, herriko kultura aniztasunari etekina ateratzeko eta elkarbizitza sustatzeko helburuagaz. Esaterako, iaz Mario Zapata soziologoaren azalpenak entzuteko aukera eskaini zuen. Gaurko ere beste hitzaldi bat antolatu du, eta Asier Etxenike soziologoak Euskal Herriko jatorri eta identitate aniztasunari buruz hitz egingo du. Etxenike, soziologoa izateaz gainera, ikerketa soziologikoetan espezializatutako Aztiker enpresako kidea ere bada. Hitzaldia 19:00etan hasiko da, kultur etxean.

Asier Etxenikeren hitzaldia 19:00etan hasiko da, gaur, Otxandioko kultur etxean

Chimeneas
Cerámicas MACOBER
Tronperri kalea, 1 DURANGO
Zeramika eta gresa

hitz liburudenda
artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

HELDUENTZAT	UME ETA GAZTEENTZAT	MUSIKA
BLACK IS BELTZA F. Muguruza, H. Cano eta J. Alderete (2014)	IRENE ETA LAGUNAK C. Arrazola eta M. Bernardo (2014)	HEGALAK ASTINDUZ Hesian (2014)

Gazteen elkargune berria izan guran jaio da Txinurriak taldea

15-25 urte arteko zaldibartarrek sortu dute taldea

ZALDIBAR Itsaso Esteban Inauterietarako ekintzaren bat antolatzeko helburuz elkartu dira asteon, lehenengoz, Zaldibar-ko Txinurriak gazte taldekoak. Herriko lau kuadrillatako ordezkariak batu dira lehenengo batzar horretan. Eratu berria den talde horren epe laburreko helburu zehatza inauterietan mozorro jaitsiera antolatzea da. Gainera, inauterietan herria girotzeko karrozak egiteko asmoa ere badaukatela aurreratu dute, besteak beste. Hain zuzen ere, herria dinamizatzen laguntzea da Txinurriak taldearen helburuetako bat; hau da, ia elkar ezagutzen ez duten herriko gazteak harremanetan ipintzeko aitzakiak sortzea.

15 eta 25 urte arteko gazte zaldibartarrak elkartu dira Zaldibarko Txinurrien taldea sortzeko. Gazte talde edo kuadrilla bakoitza taberna batean edo bakoitza bere lokalean sakabatatuta egoten dela kontatu dute

gazteek, eta gutxinaka joera hori aldatu gura dutela. Herriko gazte kuadrillak elkartu gura dituzte, gazteek elkar ezagutu dezaten, eta elkarrekin herria girotzeko ekimenak martxan ipini ditzaten. Horrela azaldu zuten, zapatuan, eskolako pilotalekuan egin zuten aurkezpen ekitaldian ere.

Herriko gazte kuadrillak batu gura dituzte, gazteek elkar ezagutzeko, eta herrian aktiboak izateko

Herritarrengan jakin-mina sortzeko, 'moskeo kanpaina' abiatu zuten duela hilabete inguru



Joan zen zapatuan, eskolako pilotalekuan egin zuten taldearen jendaurreko aurkezpena.

Gazte taldekoek esan duteenez, jende asko bildu zen zapatuko aurkezpen ekitaldi horretan, 50 lagun inguru. Duela hilabete, herritarrengan jakin-mina pizteko asmoz, *moskeo kanpaina* bat abiatu zuten: herrian zehar zabaldu zituzten taldearen ikur diren txinurrien irudiak, beste-lako azalpenik eman barik. Eta, ondorioz, herrian agerturiko irudi horren atzean zer zegoen entzutera jende asko hurreratu zen zapatuan. Ekitaldi horretan, besteak beste, taldea aurkezteko gazteek eurek euren testigantze-

kin osaturiko aurkezpen bideoa ipini zuten ikusgai. Bestalde, aurkezpena bertaratutako iritziak eta asmoak jasotzeko helburuagaz, proposamenen postontzia jarri zuten jendearen esku zapatuko ekitaldian.

Inauterietarako ekintzaren bat antolatzeko helburuz elkartu dira asteon, lehenengo aldiz

Aurrerantzean, taldeagaz bat egiten dutenek adosturiko maiztasunagaz batzartzea izango da Zaldibarko taldearen helburua. Batzar horietan zehaztu gura dituzte ikasturte osoan antolatuko dituzten ekintzak zeintzuk izango diren. Aurreratu duteenez, gura duen edonork izango du liburutegi zaharrean egingo dituzten batzarretara gerturatzeko aukera.

Ikasturte amaierara begira, bestalde, Gazte Eguna antolatze-ko asmoa dutela ere azpimarratu dute taldekideek.

'Gurea da garaipena' eguna bihar, egun osoko egitarauagaz

ZALDIBAR I.E.

Pauso bat ere ez atzera, gurea da garaipena leloagaz ospatuko dute *Gurea da garaipena* eguna Zaldibarren, bihar. Informazio gunea ipiniko dute, hasteko, 11:00etatik 14:00etara, parke zaharrean –eta euria eginez gero, liburutegiko arkupean–. Herri murala egingo dute 12:00etan, eta herri bazkaria 14:30ean. Bazkalosterako, *Denok izan behar dugu Euskal Herrian aske* bideo emanaldia antolatu dute, eta triki-bertsu poteoa abiatuko dute 18:00etan. Beñat Ugartetxea bertsolari mallabitarrek eta Garikoitz Sarrugarte zaldibartarrak kantatuko dute poteoan. Udaletxe-ko plazan hasiko da, 18:00etan, bertsu-poteo hori.

Gauetz, 22:00etan, manifestazioan joango dira autobus geltokitik gaztetxeraino, eta jarraian kontzertua izango da gaztetxean. Elorrioko Iheskide eta Sermond's taldeek, eta Ezinean taldeko gipuzkoarrek eskainiko dituzte *Gurea da garaipena* eguneko egitaraua ixteko hiru kontzertuak.

'Euskal Herriak erabaki' hitzaldia antolatu du Kantxa Zati Batek

BERRIZ Amaia Ugalde

Erabakitze eskubidearen aldeko Kantxa Zati Bat taldeak mahai ingurua antolatu du urtarrilaren 31rako. *Euskal Herriak erabaki* izenburupean, Iñaki Zarraoa, Laura Mintegi eta Oscar Rodriguez izango dira hizlari. Alderdi politikoe-kiko loturak gainditu, eta nor bere izenean egingo du berba. Kultur etxean, 12:30ean hasiko dute mahai ingurua.

Oihalen ekimena

Ekainean Gure Esku Dagok egingo duen ekitaldira begira, oihal zatiak saltzen hasi da Kantxa Zati Bat. Hogei pertsonako taldeetan, oihal bat hartu, margotu, eta mezuak idaztea da kontua. Gero, egun jakin batean, Berrizko oihal guztiak josteko geratuko dira, eta oihal handi hori Bizkaiko beste herrietako oihalekin josiko dute ekainaren 20an, San Mamesen. Kantxa Zati Batekoak elkartetara eta taldeetara jotzen hasi dira, oihal zatiak eskaintzeko. Interesa dutenei euren gana jartzeko dei egin diete.

San Blas jaien lehen egunerako aukerak

Urtarrilaren 30ean hasiko dituzte San Blas jaiak

ABADIÑO I.E.

Gaztetxean kontzertuak eta Gaztañodi elkartean Abadiño-ko bertsu eskolak antolaturiko bertsu afaria egingo dituzte, gaur zortzi. San Blas jaietarako, otsaileko lehenengo astebururako, prestaturiko ekintza guztien artean lehenengoak izango dira aipaturiko bi horiek.

Etxahun Lekue eta Iker Zubeldia bertsolariak gonbidatu dituzte urtarrilaren 30eko afarira

Durangaldeko musika talde biren zuzenekoak entzuteko aukera izango da urtarrilaren 30ean, gaztetxean: Durangoko Baghdad eta Atxondoko Ghetto taldeekin, gainera, Pepe Botikak ere joko du, 22:30ean hasita.

Etxahun Lekue eta Iker Zubeldia gonbidatu dituzte, bestalde, 21:00etan Gaztañodi elkartean hasiko den bertsu afarira. Abarkateruena tabernan eta Petite liburu dendan daude sal-

gai bertsu afari horretara joateko txartelak.

Gainera, urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra arteko egitaraua prestatu dute Abadiño-ko txosnek. Jaietako lehenengo eguneko 18:30erako, umeentzako moto eta patinete lasterketa eta grafiti tailerra antolatu dituzte. Bestetik, Elorrioko DJ Jon Frazie eta DJ Txil Aut legazpiarra ariko dira 00:30etik aurrera.

Argazki lehiaketa

Otsailaren 3an egiten den nekezaritz eta ganadu azoka ardatz hartuta, bestalde, VI. San Blas Argazki Lehiaketa antolatu du Abadiño-ko Udalak. San Blas azokaren egunean, otsailaren 3an, egindako argazkiak eskura zein postaz entregatu daitezke, otsailaren 13ra arte, Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan. Otsailaren 20an egingo dute sari banaketa ekitaldia, Errota kultur etxean.

Argazki lehiaketako irabazleak 400 euroko saria jasoko du, bigarrenak 250 eurokoa, eta herriko lanik onena aurkezten duenak 150 eurokoa.

Tinduferra bidaltzeko elikagaiak batzen dabilta

MALLABIA Jone Guenetxea

Mallabiko Udalak elkartasun kanpainagaz bat egin du aurten ere. Ekimen horren helburu nagusia Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu kanpalekuetan bizi diren saharauei elikagaiak helaraztea da. Aurten honako hau eskatu dute: hegaluzea oliotan (latak), azukrea, arroza, lekak, sardinak eta konpresak.

Mallabiko udal arduradunek jakinarazi dutenez, elikagai eta lehen premiazko produktu horiek eskolara eraman ditzakete herritarrek, urtarrilaren 29a baino lehen, edo udaletxera, urtarrilaren 30era arte.

Durangaldean eta Euskal Herri osoan batutako produktuekin Karabana Solidarioa abiatuko dute, otsailean, Tindufeko kanpalekuetara.

Kantuan auzorik auzo

Mallabiko abesbatza Santa Ageda abesten irtengo da otsailaren 1ean. 11:30ean jarri dute hitzordua. Mallabiko Osmá, Zengotita, Geria eta Goita auzoetan abestuko dituzte Santa Ageda koplak.



Durangoko Kirol Errota gimnasioan, ciclo indoor saio batean.

Urte berrirako promesari heldu, eta kirola egitera animatuta

Durangoko Landakon %9ko igoera zenbatu dute jarduera bideratuetan

DURANGALDEA J.D. / M.O. Ez da mito bat. Urte berrirako promesari heldu, eta kirola egitera animatu dira hainbat lagun. Bizimodu osasungarria egitea, Gabonetako otordu opa-roetako kiloak kentzea... Hainbat dira erabakia hartzeko arrazoiak.

Spinninga, igeriketa, korrika... Jarduera ugari praktikatzeko asmoz izena eman dute askok

kiroldegi eta gimnasioetan. Durangoko Landako II instalazioetan –igerilekuak eta kiroldegiak– ehunka lagun mugitzen da egunero. Urte hasiera honetan, beste hilabeteekin alderatuz gero, kiroldegiko arduradunek %9ko igoera zenbatu dute jarduera bideratuetan; hau da, spinning, aquabike, aquagym, zumba eta antzeko ekintza zehatzetan. Zornotzako kiroldegian,

osteran, 150 lagunek hartu dute dagoeneko hamar saiotarako balio duen bonua. Iazko apirilko datuekin alderatuz gero, igoera ikusi daiteke; 105 izan dira izena eman dutenak. Elorrioko kiroldegian ere, urtarrilean, urtero igartzen ei da jende gehiago, beharginek azaldu dutenez. Igerilekuak eta gimnasioa baten dituen bonu integratuak dauka arrakasta gehien.

Zoladura ekologikoaren alde Durangon eta Iurretan

Zoladura berriaren %80 hondakinekin egin dute



Alkateak eta enpresetako arduradunak, atzo, Iurretan.

DURANGALDEA M.O. Durangon eta Iurretan zoladura ekologikoaren esperimentazioan sakondu gura dute. Ik4-Azterlan zentro teknologikoak, eta Probisa eta Prefabricados Alberdi enpresek zoladura berri bat asmatu dute, eta herri biak prest agertu dira bertan probak egiteko. Trafikoaren kutsadura xurgatzeko balio duela uste dute sortzaileek, eta, gainera, produktuaren %80 hondakinak berrerabilita landu dutela azpimarratu dute. Altzairugintzako hondarrak eta harea dira %80 horren parte, eta gainerakoa zementua da.

Gimnasioetan ere gora

Kiroldegietan baino jende gutxiago ibiltzen da gimnasioetan, baina urte berriko inskripzioen igoera ere antzematen dute. Durangoko Kirol Errota gimnasioan igarri dute urte berriko gorakada, eta erabiltzaile kopurua kontuan hartzen bada, %10ekoa izan da igoera, gutxi gorabehera. Jon Urkiza arduradunaren arabera, jarduera bideratu edo zehatzek laguntzen dute horretan. Gimnasioaz gainera, ciclo indoor eta fit combat ekintzak dauzkate, adibidez.

Open Klub gimnasioko Ivan Urkizuk adierazi du orain dela sasoi arrakastatsuen: “Urtarrila eta otsaila dira, irailagaz batera, alta gehien izaten diren hilabeteak. Urteko alden %50 batzen dira hiru hilabete horietan”. Dantza eta fitnessa elkartzen dituen Sh’bam jarduerak, adibidez, “harritzeko moduko arrakasta” daukala esan du.

Zirkin gimnasioko Alvaro Gonzalezek azaldu du oraintxe egiten dela urteko inskripzioen %30. Iraila ere antzeko sasoi izaten ei da: “Jendeak udan ez du bere burua ondo ikusten, eta zerbait egin behar duela pentsatzen du”. Oihane Unzalu gimnasioko teknikariak esan du abenduan, dagoeneko, urtarrilean izena emateko galdezka joaten zaiela jendea. Gorakada urterokoa dela dio, bai gimnasioan, bai nutrizio saioetan. “Ikusten da kontzientzia badagoela. Baina batzuek utzi egiten dute gero”.

Galtzada-harri estiloko zoladura da. Iurretan, Zubiaurre kalean ipini dute, lurpeko kontainerren atzean. Durangon, Pablo Pedro Astarloa kalean –Jesuitak ikastetxearen parean– ipiniko dute, espaloi zabalenean. Trafikoak isurtzen dituen nitrato oxidoak jasotzen ditu produktu berriak, eta, arduradunek azaldu dutenez, euriaren eraginez deuseztatzen dira. Iñaki Totrikaguena Iurretako alkateak “apustuaren garrantzia” nabarmendu du, eta Durangoko Aitziber Irigorasek Montevidoko asfaltoaren eta trafikoak lasaitzeko neurrien ildoan kokatu du.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA

PSE



C hepatitis

Zer dela-eta idatzi behar du C hepatitiserako sendagaiei buruz herri bateko zinegotzi batek, informatikaria ere bade-nak? Bada, osasun-sistemaren egoeraz kezkatuta nagoelako, eta C hepatitis duen lagun bat dudalako. Ez da harritzekoa gaixotasun hori duten pertsonak ezagutzea, Euskadin 20.000 gaixo baitaude, gaixo bat ehun laguneko. 2011tik hona, hainbat sendagai ematen dira, genotipoaren arabera. Sendatzeko indizeak %70 inguruan daude, baina albo-ondorio ugari dituzte. Orain, azken belaunaldiko antibiral berriak atera dira merkatura. Kasuen %90ean sendatzen dute gaixoa, eta, gainera, ez dute albo-ondoriorik, eta emateko errazak eta egokiak dira genotipo guztietarako. Hau albiste ona, hau bai poza! Arazo bat baino ez dute: prezioa. Euskadi da sendagai berri hau ematen duen autonomia erkidego bakanetako bat. Hala ere, ez zaie gaixo guztiei ematen. Larrialdiaren arabera, 20.000 gaixoaetik 25ek baino ez dute jasotzen. Jainkoarren! Eta gainerako 19.975 gaixoa? Gainerakoei sendagai zaharkituak ematen dizkiete. Oso sendagai toxikoak, ez hain eraginkorrak, baina askoz ere merkeagoak. OMC Medikuen Elkargoko Erakundeak salatu du azken belaunaldiko sendagai berriak merkaturatzen dituzten farmazia-laborategiek finkatzen dituzten prezioak neurrigabeak eta bidegabeak direla, eta ohartarazi du horrek finantza-kolapsoa sorraraz dezakeela, Osasun Sistema Nazionala suntsitzeko modukoa. “Diru-gose hutsa da, ez bada osasun-sistemak suntsitu nahi direla”, adierazi du OMCKo presidentek. Zer nolako jendartean bizi gara? Non dago osasun publikoa eta unibertsala? Zein motatako politikoak ditugu agintean?

ITURRIAGA
SUKALDEAK
Gremioen koordinaketa

Trafikozte, 2-48220 | Abadino - Tf. | Fax: 94 655 07 22 - 605 740 176

momotxo
t a b e r n a

Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006



Hauteskundeetarako motorrak berotzen

Alderdiek maiatzeko botoak dituzte jomugan

M24 Markel Onaindia

Lau hilabete baino ez dira falta maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeetarako. Alderdi guztiak dabilta bidaia orria osatzen data horri begira. Il-do horretatik, hauteskundeetara zuzendutako ekitaldiak izan dira asteburuan. EAJk eta PSE-EEK hautagaien aurkezpen ofiziala egin zuten joan zen asteburuan. EAJk, baina, eskualdeko zerrendaburuak aurreko asteetan ezagutarazi zituen. PSE-EEen ere Duran-

goko Pilar Riosen hautagaitza ezaguna zen arren, alderdiaren aurkezpenean ofizialki baieztatu zen. EH Bilduri dagokionez, hauteskunde programak osatzen dihardu hainbat herritan.

Alderdiek hauteskundeetara zuzendutako hainbat ekitaldi antolatuta zituzten joan zen asteburuan

Pilar Riosen hautagaitza era ofizialean aurkeztu dute

PSE-EE

Pilar Ríos da Durangorako PSE-EEren alkategaia, eta, joan zen domekan, era ofizialean

aurkeztu zuten, Bilbon eginiko ekitaldian. Idoia Mendiak Bizkaiko 20.000 biztanletik gorako herrien hautagaiak babestu zituen, eta udal hauteskundeetan alkatetza asko eskuratzeko aurreikuspena egin zuen. Horrela, Bizkaia "herritarrei bueltatzea" lortuko dutela uste du, eta bide horretan batzera animatu zituen sozialistak.



PSE-EEko hautagaiak, tartean Pilar Ríos ere bai.

EAJren udal eta foru hautagaien aurkezpena Durangon

EAJ

EAJ alderdiak maiatzaren 24ko udal eta foru hauteskundeetako hautagaien aurkezpen ofiziala

egin zuen joan zen domekan, Durangoko Landako Gunean. Durangaldeko hautagaiak ere bertan egon ziren. Andoni Ortuzar Euzkadi Buru Batzarreko presidentea eta Iñigo Urkullu lehendakariak hitza hartu zuten ekitaldian. *Euskadi Hazi eta Arazi* leloa izango da hauteskundeetan jeltzaleek erabiliko duten aldarria.



Andoni Ortuzarren hitzaldia alderdikideen aurrean.

Hauteskunde programa osatzeko lantaldeak

EH BILDU

80 pertsona inguru batu ziren, joan zen zapatuan, Durangoko EH Bilduk Plateruenean ja-

rritako hitzorduan. "Hainbat arloren diagnosis egin dugu, eta orain lantaldeetan banatu gara, arazoak konpontzeko proposamenak plazaratzeko. Horrela, hauteskundeetarako programa osatu gura dugu", azaldu dute alderdiko arduradunek. Abadiñon eta Atxondon ere programa lantzeko herri dinamikak abiatu dituzte.



Zortzi lantaldetan landuko dute hauteskunde programa.

> DURANGALDEA ASTEON

Korrika, martxoaren 23an, Durangaldean

DURANGALDEA > Korrika Elgetatik Elorriora sartzegaz batera helduko da eskualdera. Martxoaren 23a astelehena da, eta Elorriora 13:05ean helduko dela kalkulatu du AEK-k. Eskualdean hainbat kilometro egin eta gero, Ermutik Eibarrera irtengo da. Zornotzan, azken egunean, martxoaren 29an igaroko da, 03:41ean.

Txiki Park gunea irekiko dute bihar

DURANGO > Durangoko Udalak Txiki Park gunea irekiko du bihar, Landako erakustazokan. Batez ere, 2-5 urte arteko gaztetxoei zuzenduta egongo da, eta urtariletik maiatzera arteko asteburuetan egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara. Jaiegunetan ere zabalik egongo dela jakinarazi du udalak. Sarrera doakoa izango da.

Julen Martinezek irabazi du iPada

DURANGO > Durangoko merkataritzan euskara gehiago erabiltzeko ITG taldeak martxan duen *Salerosketak be euskeraz* egitasmoren barruan sariak zozkatzen dituzte hileroko. Urtarrilaren 1ean zotz egin zuten iPada Julen Martinez Ruizek irabazi du. Mendi denda izan da txartel irabazlea banatu duena.

Iritzia

1965eko San Bixente egunean

1965. urtea. Urtarrilak 22, San Bixente eguna. Abadiñoko Astola auzoko patroia eguna da, eta lagun kuadrilla bat afaltzeko gelditu da. Jai giroan kamufaturik, uste dute berde kolorekoak ez direla konturatuko "Astolako etxe berrian" prestatu duten batzarrarekin. Guadalupe Lizundia sukaldari, eta mahai inguruan Luís Mari Alcibar, Jesús Astigarraga, Conchi Astola, Charines Astola, Julián Berriozabalgoitia, José Luís Lizundia, Maria Arrate Salazar, Leopoldo Zugaza eta Carmen Miranda bere emaztea. Afariko gaia, Manuel Fragak kaleratu duen elkarteei buruzko legeaz baliatuz, Durangaldeko kultur ekimenak bideratzeko elkarte bat antolatzea. Afari hartan jarri ziren urte bereko ekainaren 7an Abadiñoko Soloa jatetxean sortu ziren Durango Merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartearen oinarriak. Ekainerako Astolako bederatzia "Peru Abarka" edo "Maisu Jaun" haiei beste hiru "Kixote" gehitu zitzaizkien: Vicente Kapanaga, Salvador Solaegi eta Madrilen bizi zen Jesús María Astola.

50 urte beranduago, atzera begiratzerakoan, ikusten dugu jende askoren lanaren ondorioz emaitza oparoak eman dituela San Bixente egun batez lan-

datutako urtadarrak. "San Bixente hotza neguaren bihotza", dio esaldiak, eta, benetan, urte haiek hotzak izan ziren, baina gure Durangerriak aurrera egin zuen. Ekimen haien emaitza asko gaur egun normaltzat ikusten ditugu, eta ez gara konturatzen zenbat lan egin behar izan zuten. Pentsa, batzar pribatu bat bakarrik antolatzeko, agintarien baimena beharrezkoa zela. Ez da arrosa bidea izan. Familia guztietan bezala, senideen arteko borrokak izan ditugu, bestela ez ginen euskaldunak izango. Baina bideak merezi izan du, eta oraindik merezi du lanean irautea. Gerediaga izena ikusten duzunean ez pentsa pertsona bakar baten lanaren aurrean zaudenik, baizik eta lur baten alde lan egin, eta egiten jarraitzen duten andre eta gizonen osatutako talde baten emaitza ikusi. Aurrekoak joan dira, eta, bizitzaren legea den bezala, gu ere joango gara, baina Durangerriak irauten duen bitartean, izen batekin edo beste batekin, merezi du bere alde lanean jarraitzea, eta lan horretan denok dituzue Gerediaga Elkarteko ateak zabalik. 50 urte pasatu dira, eta urteurren honek balio dezala momentu batez atzera begiratzeko, arnasa hartzeko eta bidean lanean jarraitzeko ze... etorkizuna geurea da!



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

▶ Berbaz

Joxe Felix Azurmendi | Kazetaria | Durango, 1941

“Uste dut gizarte honek merezi duela historia beste modu batera tratatzea”

Azurmendik Venezuelan ikasi zuen kazetaritza; ‘Egin’ eta ‘Deia’ egunkarietan, eta EITBn lan egin du

> BERBAZ Jone Guenetxea Irratia piztu eta Joxe Felix Azurmendi tertuliaren batean entzutean, gutxi jakingo dute jaiotzez durangarra dela. EITBn jubilatuta eta gero, Euskal Herriaren historiari buruzko hiru liburu kaleratu ditu.

Zelako lotura duzu Durangogaz?

Santa Maria, 1 zenbakian jaio nintzen, Mancisidor bitxi dendaren gainean. Lehenengo pisuan. Nire gurasoak Gernikan bizi ziren. Bonbardaketaren erruz, ezer gabe gelditu ziren. Aitak, kartzelatik pasa ondoren, ez zeukan Gernikara bueltatzerik, eta Urkizu botikan topatu zuen beharra. Nire gurasoek zortzi urte pasa zituzten Durangon, eta nik sei. Bertan jaio nintzen, eta handik gernikara joan ginen, Markinatik pasa ostean. Beraz, Oiz inguruan ibili naiz beti. Oso gutxi oroitzen dut, baina badakit Santa Susana ikastetxean egon nintzela eta lehenengo jaunartzea Durangon egin nuela. Gure pisuan Don Juan Olazaran apaiz karlista ezaguna bizi zen, bertako organista, eta berak esan zuen: “Ume hau prestatuta dago, eta jaunartzea egin behar du”. Eta 6 urte gaz Jauna hartu nuen.

1963ko abenduan klandestinitatera pasatu zinen.

Urte pare bat klandestinitatean eman nituen, barruan eta kanpoan. Orduan bai izan nuen lotura Durangogaz, baina lotura klandestinoa.

Ondoren, Venezuelara joan zinen. Zelan itzuli zinen?

Bederatzi urte eman nituen bertan. Ikasketak amaitu aurretik, azken ikasturtean eskolak ematen hasi nintzen, unibertsitatean. Beka bat lortu nuen doktoretza egiteko. Bordelen egitea aukeratu nuen, posible nuelako

familia Donibanen uztea. Ordu-rako hiru seme-alaba neuzkan, eta posible zen ikastolan hastea. Handik etorri, eta ez nintzen berehala Hegoaldean sartu. Lurreratze lasaia izan zen. Oso argi neukan aurreko kontuak aurrekoak zirela eta diskrezio osoz, lezioak ematera baino, entzutera sartu behar nuela.

Euskal Herriaren historiaren inguruan hiru liburu kaleratu dituzu bata bestearen atzetik. Trilogia dela esan daiteke?

Badu zentzu hori, baina hori gero ikusi dut. Lehenengo liburua, *PNV-ETA, crónica oculta (1960-1979)*, EAJren eta ETAren arteko harreman egon diren gezurrak argitzeko idatzi nuen. Hori zen printzipioz nire helburu bakarra. Hor sartu nintzen, eta gerra garaiko buruzagien korrespondentzia aztertzen hasi nintzen. Oso gauza interesgarriak topatu nituen, eta pentsatu nuen hori ere jakin egin behar zela. Horrela sortu zen bigarren liburua. Gero, ETAk armak utzi zituen, eta, bai betebeharrak bezala, bai nire biografia eta ofizioarengatik, beste liburu bat kaleratu nuen. Horretarako betiko kazetaritza informatiboa erabili nuen. Poto-loa eta gogorra da, gure historia gogorra izan delako.

Egungo Euskal Herriaren egoeraren inguruan zein iritzi duzu?

Podemosen indarra ikusi ondoren, pentsatzen hasi naiz Podemos, mehatxutzat beharrean, aukera bezala ikusi behar dugula. PPGaz ez dago zereginik. Ez du interesik duen martxa aldatzeko: ez zaio komeni. Gehiengo absolutua eta gobernua galtzen duenean posible izango da orain posible ez diren eta hain logikoak diren gauza batzuk egitea.

Oso komunikabide desberdinetan lan egin duzu. Zelan go-



Elkar

goratzen duzu ‘Egin’ zuzendu zenueneko sasoia?

Venezuelatik etorri nintzenean, nire asmoa unibertsitatean eskolak ematea zen, eta Leioan hasi nintzen. *Egin* egunkariagaz kolaboratzea zen asmoa, eta hasieran horrela izan zen, baina, gero, arazoak zirela medio, behartua sentitu nintzen *Egin*en sartzeko. Zortzi urte eman nituen bertan. Urte oso gogorrak izan ziren, baina nire bizitza profesionalean egin dudana gauza interesgarriena hori izan da. Ni ia astero joaten nintzen deklaratzera, eta epaiketak han eta hemen izaten nituen. Beti libre atera izan naiz. Behin kondenatu ninduten, eta, Iñigo Iruinen bidez, Auzitegi Konstituzionalak arrazoia niri ematea lortu genuen. Dena zen berria guretzat.

Zelan eman zenuen ‘Deia’ egunkarirako jauzia?

Egoera aldatu egin zen, eta, momentu batean, *Egineko* zuzendaritza utzi behar nuela esan zidaten. Kazetari lanetan kolabo-

“*Kazetaritza arloan uste dut bide berria sarea izango dela*”

ratzen jarraitu gura nuen, baina esan zidaten nigan ezin zutela nahi zutena egin. Ni ez nintzen *Egin*etik atera *Deian* sartzeko. Urtebete langabezian egon nintzen, eta gero lana eskatu nuen *Deian*. Beste proiektu bat zela eta ez zela nire proiektua jakinda sartu nintzen. Hori kontuan izanda, nire *Deiako* urteak oso lasaiak izan ziren. Gero Radio Euskadira joan nintzen, eta oso gustura egon nintzen.

Behin jubilatuta, iritzi emaile moduan diharduzu. Inoiz haserretirik izan duzu?

Nire helburua ez da inogaz haserretzea. Hala ere, nire kezka da beti berberekin haserretzea. Ez

nuke nahi beti pertsona berberekin haserretu. Nik ez dut inor engainatzen. Nire ikuspuntua ematen dut. Seguru asko, azken liburu honetan denentzat dago, baina ez nik asmatuta. Garai batean esaten zirenak eta eduki-tzen ziren iritziak orain aipatzea gogorra izango da batzuentzat. Nik uste dut gizarte honek merezi duela historia beste modu batera tratatzea.

Kazetaritzak zer garapen izan du urte hauetan guztietan?

Kazetaritza enpresak aldatu egin dira. Une honetan kazetari gehiegi daude merkatuan, eta jende asko langabezian dago. Enpresa handienak ere kolokan daude. Kazetari eginda etorri nintzenean, aukera zegoen enpresa batetik bestera pasatzeko. Gaur ez dago aukera hori. Lanpostu bat lortzen baduzu, kazetaria jakitun da non dagoen, eta zer egin behar duen lanpostu hori mantentzeko. Orain beste aukera batzuk sarean daude, eta uste dut bide berria horixe izango dela.

Saroa Bikandi | Ipuin kontalaria **Cecilia Paganini** | Antzezlea

“Sortze prozesua oso gozagarria izan da: ideia piloa landu dugu elkarrekin”

Bihar, 12:00etan, Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko dute Bikandik eta Paganinik ‘Ipuinen kobazuloa’ lana

> IKUSKIZUNA Itsaso Esteban Lehenengo esperientzia duzue biok binakako ipuin kontalaritza saio batean?

Saroa Bikandi: Bai, eta, egia esan, ez da batere formatu ohikoa. Ipuin kontalaritza ikuskitzun bat sortzea proposatu zidaten Durangon, eta ez neukan bakarrik lan egiteko gogorik. Bestela ere lan asko egiten dut bakarrik. Oso gustuko dut Cecilia duen lan egiteko modua, eta beragaz primeran pasatzen dut, eta elkarrekin lan egitea proposatu nion. Elkarrengandik asko ikasten gabiltza, eta elkarlanagaz asko gozatzen ere bai.

Cecilia Paganini: Sortze prozesua oso gozagarria izan da: ideia piloa landu dugu elkarrekin. Landutako ideia horietatik guztietatik ikuskizunerako aproposenak iruditzen zaizkigunak aukeratu ditugu, ondoren. Saroak oso ondo daki adin bakoitzean zer-nolako istorioak diren ondoen hartzen direnak, eta oso lagungarria izan da hori.

Zelan elkartu zarete?

C.P.: Duela hamar urte inguru, EHUko dantza ikastaro batean ezagutu genuen elkar. Gero, Durangora bizitzera etorri nintzen, eta topo egin genuen berriro: nik entseatzeko nuen antzokiko sarreran zebilen lanean. Orduetik hona Saroaren ipuin kontaketa saioetara joaten naiz, eta bera

nire antzezlanetara etortzen da.

S.B.: Bakoitzak bere esparruan lan egiten badu ere, antzeko gustuak dauzkagu, eta elkarlanerako Cecilarengan pentsatu nuen.

Berrizko biharko emanaldiaren aurretik beste lekuren batean eskaini duzue ikuskizuna?

S.B.: Bai, Durangoko Liburutegian eta Bilboko Alondegian eskaini ditugu emanaldiak, eta oso erantzun ona jaso dugu. Oso pozik gaude: ikusi dugu funtzionatzen duela.

Zein adin tarteko haurrei dago zuzenduta ikuskizuna?

S.B.: 3 urtetik 8 urtera artekoak dago zuzenduta, baina helduek ere asko gozatzen dute.

C.P.: Nik askoz lan gehiago egiten dut helduentzat, pentsatzen dudalako, clown-aren umoreagaz helduak ondo pasatzen badu, umeak ekarri nahiko dituela.

Ikuskizuna osatzen duten ipuinak nondik hartuak dira?

S.B.: Askok irakurtzen dugu, eta ezagutzen ditugun ipuinetatik egin dugu hautaketa.

C.P.: Nik seme-alaba bi dauzkat, eta asko begiratzen diot eurek eskatzen didatenari.

Zein da istorio guztiak lotzen dituen haria?

C.P.: Kobazuloa da hari nagusia, eta horri buruzkoa da lehenengo

“**Ipuinen, txisteen eta kanten kobazulora geugaz etortzera gonbidatzen ditugu umeak**”

“**Emanaldia 3-8 urtekoei dago zuzendua, eta helduek ere asko gozatzen dute**”

ipuina: ipuinen kobazulora etortzera gonbidatzen dugu jendea.

S.B.: Ipuinez, txistez eta kantaz beteta dagoen kobazulora geugaz etortzea proposatzen diegu emanaldiaren hasieran umeei.

C.P.: Umeek gorputza eta orainaldia sentituko duten ipuin batez gura genuen. Momentua gozatzen gonbidatzen ditugu entzuleak.

S.B.: Gero, Akerraren kanta, iratxoaren ipuina, eta berbak erosi egin behar diren herriari buruzko istorio ederra kontatzen dugu.

Zein izan da sortze prozesuko zailtasunik handiena?

C.P.: Ipuin kontalaritza saioa euskaraz izanik, eta nik hizkun-

tzagaz dauzkadan zailtasunekin, gustura zelan ibiliko nintzen pentsatzea izan zen elkartu gine-neko erronka. Testurik erabili barik, nik zelan parte hartu nezakeen topatzea izan da helburuetako bat. Entseguetan hasi nintzen konturatzen emanaldiko une batzuetan nik ere zerbait esan gura nuela, eta erabaki genuen, nire eguneroko bizitzan bezala, euskaraz saiatzea. Ahal dudana bezala, hizkuntzak nahastuta komunikatzen naiz, eta saiatzen naiz euskaraz adierazten. Lotsarik batere ez daukat, eta, Argentinarra izanik, hizkuntzagaz egunero daukadan bizipena islatzen dut ikuskizunean. Edozela ere, arte plastikoaren arlokoa da emanaldietan nik egiten dudana lan gehiena: gorputzagaz, soinuekin edo hainbat objektugaz jolasten dut, Saroak istorioa markatzen duen bitartean.

S.B.: Azken finean gu bion ezagarrizkara eta posibilitateetara moldaturiko ikuskizuna da *Ipuinen kobazuloa*.



> LITERATURA Itsaso Esteban Joseba Sarrionandiaren literaturaren inguruan ardaztu zuten iaz Hitzez eta Ahotsez ekimena. Durangaldeko hainbat kultur-gilek eta kultur-zalek idazle iurrarraren obran sakondu zuten ekimenaren barruko berbaldi eta tertulietan, eta, apirilean, arratsaldetik gauerdia arte, 200 lagun bildu ziren Joseba Sarrionandiaren berba eta gogoetak errezitatzen eta abestera, Durangoko Plateruenean.

Bigarren edizio honetan, besteak beste, Joseba Sarrionandiaren literaturan ere esanguratsua den gai baten inguruan aritzea erabaki dute, ekimenaren bultzatzaileek: *itsasoa* kontzeptuaren ingurukoa izango da Hitzez eta Ahotsez ekimenaren bigarren edizioa.

laz bezala, otsailean eta martxoan tertulia literarioak izango dira, Durangoko Udal Liburutegian

Gai hori hautatzeko arrazoiez galdetuta, hainbat aipatu dituzte antolatzaileek: “Euskal literaturan gehien erabili izan den gaietako bat da itsasoa, metaforetarako aukera bikaina eskaintzen du, itsasoari buruz idatzi duten idazleen lanak oso gogoko ditugu, eta, itsasoari buruzko hainbat poema musika-

‘Itsasoa’ gaia hartuko dute Hitzez eta Ahotsez ekimenaren bigarren urtean

Joseba Sarrionandiaren obraren inguruan egin zuten, iaz, lehenengo edizioa



‘Itsasoa da bide bakarra’ izenburuko berbaldia eskainiko du Eider Rodriguez oreretarrak, urtarrilaren 27an.

tuta daudenez, oso egokiak dira irakurraldirako”.

Itsasoak Sarrionandiaren literaturan izan duen presentziari buruz *Itsasoa da bide bakarra* liburua argitaratu berri duen Eider Rodriguez (Orereta, Gipuzkoa, 1977) idazlearen berbaldiagaz hasiko da aurtengo Hitzez eta Ahotsez. Sarrionandiaren itsas irudien –naufagoak eta portuak, esate baterako– az-

terketaren inguruko berbaldia eskainiko du Rodriguezek urtarrilaren 27an, 19:00etan, Durangoko Arte eta Historia Museoa.

Iazko lehenengo edizioan bezala, herri errezitaldi batez emango diote, aurtun ere, ekimenari amaiera. Apirilaren 24an, Durangoko Plateruenean izango da ekitaldi hori. Hainbat idazleren ipuinak, narrazioak eta poemak izango dira 2015eko

Hitzez eta Ahotsez ekimeneko errezitaldirako gaiak: Joseba Sarrionandia, Leire Bilbao, Miren Agur Meabe, Kirmen Uribe, Txomin Agirre, Pako Aristi, Toti Martinez de Lezea eta Aurelia Arkotxarenak, esaterako.

Antolatzaileek aukeraturiko testuak zein norberak sorturikoak irakurri ahalko dira apirileko errezitaldian

Baina horretaz gainera, aurtengo nobedadea izango da sortzaile ezezagunek tarte berezia izango dutela errezitaldian. Izan ere, antolatzaileek aukeratutako testuak zein norberak sortutakoak irakurri ahal izango dira. Antolatzaileen berbetan, “testuaren luzera izango da muga bakarra: pare bat minutu izango ditu irakurle bakoitzak, bere testua irakurtzeko”.

Iaz bezala, apirileko ekitaldiaren aurretik, tertulia literarioetan elkartuko dira otsailean eta martxoan, Durangoko Udal Bibliotekan.

GEURE DURANGALDEA

ARANTZA ARRAZOLA eta MAIDER LARRAÑAGA

San Agustin kultur-gunea



Aupa Natxo!

Zutabe hau hasteko mila modu egon daitezke, *agur, laster arte, joan zara...* eta halakoe-tan esaten diren beste gauza mordo bat, guk *aupa* nahiago. Arrarora da oraindik zutaz lehen aldi berba egitea, eta ezinbestean irribarre bat ateratzen zaigu zurekin akordatzeko.

Eta, akaso, gutxi inportako zaizu, irakurle, berari buruz esan behar ditugunak; kariñoa genion, eta ez dugu bestelako aitzakiarik berriro sekula ikusiko ez dugun laguna ez agurtzeko. Etxe honetan hartu gintuen lehen nagusietarikoa izan zen, administrazioa eta udalgintza ulertzeko modu partikularra zeukan, burokraziaren antipodan Orozketako txokotik oratzen zion egitekoari.

Zezenaren sokatik hasi zinen udaletxerantz hurbiltzen; gerriaren bueltan lotutako soka hartatik, sanfaustoe-takoa etorri zen, eta handik udaletxekoa, guztira 30 urte; zezenetan bezala ekinez, gerri bueltan soka jantzita ekindako urte luzeak.

Soka horretatik tiraka datozenetan ere akordatu gara Mojinosen kontzertuak, Loquilloren ez-kontzertuak, ia mito urbano bihurtu den Tahuresek emandakoak, eta, zelan ez, Durangon sokamuturra beharrean “zezenak direla” solemnitaterik defendatzeaz.

Akordatu gara datozene-tan ere, txupinazoan, Zezenak Diran eta kale giroan, eta orduan zure izenean topa egingo dugu, eman zenuen soka luze horrek jarraituko baitu San Fausto bakoitzean. Aupa Natxo!



200 lagun inguruk parte hartu zuten iazko ‘Sarri hitzez eta ahotsez’ ekimenaren Platerueneko errezitaldian.

San Agustin Kultur Gunea
San Agustin@durango-udala.net - Tel.: 946 030 021

Arrastoak
Dejahu Panpin Laborategia
Otsailaren 1ean
19:00etan



San Agustin KULTUR GUNEAN

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

URTARRILAK 30 20:30ean 12€	URTARRILAK 31 23:00etan 12/15€	OTSAILAK 7 22:30ean 6/8€
GONTZAL MENDIBIL + MIKEL MARKEZ eta ARKAITZ MINER MUSIKA KONZERTUA	ERNESTO SEVILLAREN ESTREINUA BAKARRIZKETA	IZAKI GARDENAK + INUN MUSIKA KONZERTUA

EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK LARUNBATERA

Leialdeko etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 000



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoak, ateen, zokaloen, armairu armairaldeak eta enbikatutako altzarien lakadunak.
- Pinturak eta pinturak apaindurak.
- Era guztieneko zaharberitzeak egiten ditugu.

Elnas Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 946 824 143 - 658 758 421
Faxa: 946 824 895 - info@jaioarnizatuak.com



GARBIKETA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulegoelako eta industrietako mantentze-lanak
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta abar

Goleta, 10 - 2 esk. - ELORRIO
Tel.: 946 820 991



LOREZAINNTZA

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Montevideo, 23. 1. azk. PATXI
48200 DURANGO 696 463 085



ITURGINTZA

urtiaga

Proiektu eta Errealizazioak, S.L.
Gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN OINTZI, BEROGAILU AZULEJUI, ZOKADURA, TEJILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOI ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

Bolagaren kalea 3 - Tel.: 946 814 474 - Faxa: 946 215 374
Emaila: urtiaga@urtiaga.info - MATIENA-ABADIÑO

Mallabiena

M.Z.O.ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

K21

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 05
625 70 22 08
Ubide@euskaltel.net



Profesional onenak zure zerbitzura!

‘Hald’ fantasiako liburu idatzi du Rakel Duran elorriarrak

Idatzi duen lehenengo nobela argitaratzeko autoekoizpenaren bidea hartu du Duranek

> LITERATURA Itsaso Esteban
Joan zen barikuan Lourdesko Ama ikastetxean aurkeztu zuen Rakel Duranek (Elorrio, 1986) idatzi duen lehenengo liburu; bera ikasle izan zen ikastetxeko gazteen aurrean lehenengo, eta publiko orokorrarentzat gero. Hain zuzen, Elorrioko ikastetxe horretan gaztelania irakasle izan zuen Pedro Fuentesek lagundu dio Duranek *Hald* liburuari azken zuzenketak egiten. Liburuaren aurkezpenean, motibazioari buruz hitz egin zien Duranek gazteei: “Zerbait nahi izanez gero, hori lortzeko borrokatzeaz, saiatzeaz eta lan egiteaz berba egin nien”.

Lourdesko Ama eskolan zebilela, 14 urte gaz, komiki bat idazteko asmotan ekin zion Rakel Duranek sorkuntzari. Manga

komikiak zituen orduan gustuko, eta marrazkigintzagaz nahi bezala adieraztea lortzen ez zuena adierazteko hasi zen idazten. “Nire hasierako ideia ez zen nobela bat kaleratzea”, dio egileak, baina buruan zeuzkan ideiei berben bitartez forma ematen hasi zen: “Eta honaino ailegatu naiz denboragaz”.

Naia eta Jake dira fantasiako nobela honetako protagonista nagusiak, eta bi mundu paralelotan kokatzen dira gertakariak: mundu gizatiarrean, eta Duranek sorturiko Hald izakien munduan. Hald soldadua da Naia, eta bizipoza galdu duen mutil bat Jake. Istripu bat dela medio, berea ez den munduan harrapatuta geratuko da Naia. Bertan ezagutuko du Jake, eta lagun egingo dira.



Erantzunik bako galderak, tentsioa eta intriga dira liburuaren ezaugarrietako batzuk.

Maine eskualdeko asmaturiko hirian kokatu du Rakel Duran idazle gazteak “mundu gizatiarreko” istorio zatia: Jesteil izeneko hirian. Bestalde, Hald munduaren geografia imajinarioaren mapa ere ematen du liburuaren hasieran. Erantzunik bako galdera asko dago nobelan, eta tentsio eta intriga horrek irakurlea jakin-minez adi-adi lotzen du irakurgaira. “Irakurri dutenek hori azpimarratu dute, hain zuzen ere: irrikaz irakurtzen dela”, adierazi du egileak.

Autoedizioaren bidea hautatu du Rakel Duranek *Hald* plazaratzeko. Diseinu grafikoaren arloan lan egiten duenez, berea da liburuaren azaleko diseinua ere: Elorrioko Angio inguruko basoan egindako argazkia agertzen da bertan.

Sorkuntza-idazketari buruzko ikastaro bat egin zuen Duranek 20 urte gaz, eta bere denbora librearen zati handi bat idaztera bideratzen hasi zen. Duela urte eta erdi, 20 urte gaz, idatzitako istorioa da *Hald* honen oinarrian dagoena. Duela zortzi urte sorturikoa da istorioa: “Ez nuen aldatu nahi oinarrian zegoen ideia”, dio Duranek. Gau haizetsu batean, txakurragaz pasean zebilela, haizeak harrotutako plastikozko poltsa batek itzelezko sustoa eman ziola kontatu du Rakel Duranek, eta, hortik abiatuta, Bilbora ikastera edo lan egitera autobusean egindako bidaietan, eskuz idatzi zituela lehenengo paragrafoak.

Kaleratu duen liburuaren bigarren parte argitara emateko prestatzen dabil Rakel Duran

orain. Gainera, lagun bigaz, *Hald* liburuaren bideo-jokoa prestatzen ere badabil. Liburuaren izen bereko Facebook-eko orrian erakutsiko dituzte horiek, sortu ahala. Bestetik, gazetetan idatziriko hainbat istorio berrartzeko asmoa ere badauka.

Jende gehiena lo dagoenean idazten du Rakel Duran elorriarrak. Eta gauez idatzirikoa da, hein handi batean, *Hald* liburu ere. Irakurri ere asko egiten du, gauez zein egunez. Gehien eragin dioten liburuetakoa bat Henry Jamesen *Otra vuelta de tuerca* beldurrezko liburu izan dela kontatu du. Stephen King eta Agatha Christie idazleen obrak ere oso gogoko ditu, eta Patrick Rothfuss idazlearen *El nombre del viento* irakurtzeko desiatzen dagoela esan du.



Duran, Lourdesko Ama ikastetxeko gazteen aurrean liburu aurkezten.

Mendibil, Markez eta Miner gau berean ariko dira, Plateruenean

Urtarrilaren 30ean joko dute hiru musikariek, 20:30ean hasita, Plateruenean



Bere bandak lagunduta eskainiko du kontzertua bariku gauean Mendibilek.

> MUSIKA

Gontzal Mendibil, Mikel Markez eta Arkaitz Miner ariko dira, urtarrilaren 30ean, Durangoko Plateruenean. *Nire bihotzak zure begiak ditu* izenburuko diskoa kaleratu zuen Gontzal Mendibilek (Zeanuri, Bizkaia, 1956) urrian, eta musikari bandak lagunduta eskainiko ditu disko horretako kantak, 21:30ean hasita, Durangoko Plateruenean.

‘Nire bihotzak zure begiak ditu’ izenburuko diskoa aurkeztuko du Mendibilek Durangoko Plateruenean

Jose Luis Canal, Angel Unzu, Joe Gonzalez, Rober Caballero, Philippe de Ezcurra, Blas Fernandez eta Marife Nogal musikariek lagunduko diete Durangoko emanaldi horretan

Gontzal Mendibilen ahotsari eta gitarrari.

Mikel Markezek eta Arkaitz Minerrek osatutako bikoteak joko du Mendibilen aurretik

Hamaika kantako diskoa da *Nire bihotzak zure begiak ditu*, eta Arratiako musikariak bere ibilbide oparoan kaleratu duen hamalagarrena da.

Abenduan, Bilbon, Donostian, Gernikan eta Azpeitian aurkeztu zuen Mendibilek diskoa, eta, Durangokoaz gainera, urtarrilean, Barakaldo antzokian ere eskaini du kontzertua.

Bestalde, Mendibilen emanaldiaren aurretik eskainiko dute euren zuzeneko Mikel Markez abeslari eta gitarristak eta Arkaitz Miner musikariak.

 **Kirola****Jose Felix Gallastegi** | Amorebietako futbol entrenatzailea | Zornotza, 1966

“Laguntza apur bategaz, baikor izateko moduan gaude”

Amorebieta futbol taldeko entrenatzaile berria da Jose Felix Gallastegi, eta Josué Atelaren ordeza heldu da



> FUTBOLA Markel Onaindia
Joan zen asteen, Amorebieta-ko gazteen entrenatzaile zela jaso zuen Jose Felix Gallastegik lehen taldearen ardura hartzeko deia. Josué Atelak dimittitu egin zuen, eta bere etxeko taldeari ezin zion ezetz esan Gallastegik. Bigarren B Mailako sailkapenean hamabosgarren postuan dago taldea, jaitziera postuetatik gertu, baina aurrera begira baikor agertu da entrenatzailea. Huesca liderraren aurka zuzendu zuen lehen partidua, eta pozik dago, berdinketa lortu zuelako taldeak. Emaizta on horren biharamunean, astelehenean, erantzun zien ANBOTOK eginko galderei.

Orain arte gazteak entrenatzen ibili zara. Lehen taldea hartzea erronka bat da?
Erronka handia, eta zelako ardura, gainera! Herrikoa naiz, eta presioa ez dut esango, baina ardura hori sentitzen dut. Beste talde batean egon izan banintz, ez nuke gauza bera sentituko. Behartuta sentitzen nintzen. Ni,

“**Amorebietakoak laguntza eske badatoz nigan, zer esango diet, bada?**”

“**Batez ere, denok batera lan egitea eskatuko diet orain jokalariei**”

hemen, Urritxen hazitakoa naiz. Hasieran jokalaria, gero entrenatzaile, bazkide ere banaiz aspalditik... Laguntza eske nigan bada, zer esango diet, bada?

Zein izango da zure metodoa? Zer eskatuko diezu jokalariei aurrerantzean?
Batez ere, denok batera lan egitea eskatuko diet orain jokalariei. Aldagelan igartzen da giro ona dagoela, eta jokalariek batera lan egitea gura dutela. Informazio

askorik ere ez diet emango; eurek badaukate, gainera, esperientzia nahikoa. Pare bat gauza esatea nahikoa izan ahal da, eurak oso lehiakorrek direlako.

Liderraren aurka berdindu zenuen joan zen asteburuan, Huescan. Ez duzu txarto baloratu, ezta?

Ez. Sekulako partidua izan zen. Eurek talde itzela daukate, profesionalak-eta fitxatu dituzte, eta igotzeko asmoa dute. Horregatik daude lehenengo, eta oraindik inork ez du irabazi han. Nahiko gaitza izaten da puntuak ateratzea, atea hutsean edukitzea, horrela eustea... Gainera, gure aukeratxoak ere eduki genituen. Hori guztia ikusita, ezin da txarto baloratu.

Sailkapenera begiratzu gero, lehia eta berdintasun handia ikusten da taularen erdialdetik behera.

Denok batera gaude. Joan zen astetik hona, adibidez, postu bat galdu dugu, baina jaitzierako postuekiko alde apur bat handiagoa daukagu. Gure aurreko

taldetik ere oso gertu gaude; sei-zazpi talde daude lau puntura. Orduan, hortxe dago borroka. Partidu bat edo bi irabaziz gero, erdialdean eta gorantz begira egon ahal gara. Galduz gero, beherantz begira.

Beraz, partidu pare bat irabaztea da zuen lehenengo helburua?

Noski. Lehenengo helburua, urgenteena, hortik apur bat irtetea da, arnasa lasai hartzeko. Ahal bada, posible bada. Bestela, borrokan jarraitu beharko dugu amaierara arte.

Denboraldia kontuan hartuz gero, mailari eustea da helburua?

Momentu honetan bai. Hemen-

“**Lehenengo helburua gauden postuetatik apur bat irtetea da**”

dik eta jardunaldi batzuetara lasaitasun apur bat hartzen badugu, ikusiko dugu, baina, bitartean, maila mantentzea izango da helburua.

Baikor zaude?

Bai. Batez ere, jokalaria ikusita. Konfiantza daukate euren buruengan. Askok eta askok ibilbide luzea daukate, esperientzia. Badakite jokalaria onak direla, talde ona dagoela, eta konfiantza daukate. Guk ere ondo ikusten ditugu, eta, laguntza apur bategaz, baikor izateko moduan gaude.

Hurrengo neurketa, asteburu honetan, Barakaldoren kontrakoa da. Zelan aurreikusten duzu?

Partidu gogorra izango dela us-te dut. Gainera, Barakaldo eta Zornotzaren artean badago lehia berezi bat. Iaz Zornotzan ibilitako batzuk han daude, eta guk ere badauzkagu Barakaldotik etortitako batzuk... Saltsa asko dago tartean. Gainera, eurek talde oso gogorra eta indartsua daukate.

“**Urtetan futboleant ikusi dudan gauza handiena Eibarrena da**”

Kuriositate lez, otsailean Real Madril Castillaren aurka jokatuko duzue. Zinedine Zidane handia etorriko da Urritxera...

Etorriko da; ez dakit. Nahiko saltsa sortu zen entrenatzaile karneta ba ote daukan, ez ote daukan, ezin dela aulkian jesarri... Ni, orain arte, nire munduan ibili naiz gazte mailan, beraz, ideiarik ere ez. Etortzen bada, bostekoa eman eta ondo, eta bestela ere bai. Berari begira ez naiz ibiliko. Ni ez naiz idoloie-eta begira egotekoa.

Zu ere izan zinen jokalaria, Amorebietaz gainera, Sestaon eta Eibarren ere bai, besteak beste. Zer esango zenuke gaur egungo Eibarri buruz?

Ander Garitanogaz lehen eta bigarren mailako baimenak ateratzen ibili nintzen. Bihar etorriko dira [Eibarren aurkako lagunarteko partidua jokatu zuen martitzenean Amorebietak], eta ez dakit berba egiteko moduan izango garen. Baina esatekoa da: azkeneko hogeitau urte hauetan, futbol munduan ikusi dudan gauza handiena da Eibar egiten dabilena.

Munduko Txapelketarako motorrak berotuko dituzte bihar, Abadiñoako ziklo-kros proban

Munduko Txapelketaren atarian, Abadiñoako proba berreskuratuko dute bihar, hamarkada baten ostean

> ZIKLO-KROSA J. Derteano

Orain urte bi sortu zuten Abadiño Muntzaratz Txirrindulari Kirol Klubak Abadiñoako Udala saria antolatu du larunbaterako. Horrela, orain dela hamar bat urtera arte tradizio handia zuen proba berreskuratuko dute, eta 160 lehiakide batuko ditu.

Urtarrilaren 29tik 31ra Herbehereetan jokatu den Munduko Txapelketarako azken prestaketa saio moduan hartuko dute txirrindulariek Abadiñoako hitzordua, eta estatu mailako onenak etorriko dira. Hutsune nagusienak gizonen elite mailako Aitor Hernándezena eta Javier Ruiz de Larrinagarena dira, asteburuan Belgikara joango direlako, Espainiako Kopako lasterketa batera.

09:30etik aurrera, mailaz maila irtengo dira txirrindulariak. Gizonen elite mailan, 13:00etan, Jose Arriola kantabriarra da favorito. 23 urtez azpikoan, Kevin Suarez kantabriarrak eta Felipe Orts valentziarrak "ikuskitzen itzela" eskaini dezaketela uste du Joseba Gorostizak, probako antolatzaileetako batek. Jon Munitxa abadiñoarra ere "oso denboraldi ona" osatzen dabil, eta



Martitzenean, Abadiñoako udaletxean aurkeztu zuten ziklo-kros proba.

"oso motibatuta dago lasterketa bere jaioterrian delako". Emakumeen elite mailan, 10:30ean, Turretako BZK Emakumeen Bira taldeko Naia Alzola duran-garra da favorito nagusia.

Mutilen kadete mailan, Txomin Munitxa abadiñoarrak (Gaurisa-Renault) Jon Murias muskiztarra izango du arerio nagusia; nesketan ere favorito argi bi daude: CAF Engineering taldeko Andere Basterra eta Lui-

sa Ibarrola arabarra. Azkenik, gazte mailan, Julen de la Torre arabarra (Spiuk taldea) eta Mireia Muñoz muskiztarra (CAF Engineering) dira favorito.


Zirkuituak 2,6 km ditu, teknikoa eta gogorra dela adierazi dute antolatzaileek, eta ia beti zelaietatik ibiliko dira.

Egoitz Murgoitio bizikletan Gaztetxoaren artean ziklo-krosarako zaletasuna sustatu guran,

11:30etik aurrera adinaren arabera banatutako (6-10, 10-12 eta 12-14) hiru lasterketa antolatu dituzte. Izen-ematea doakoa da, eta egunean bertan egin daiteke. Egoitz Murgoitio parte hartuko du proba horietan. "Ziklo-kros proba bere jaioterrian izango denez, Murgoitio omenaldi bat egin gura izan diogu. Gainera, gaztetxoei seguru ilusio handia egingo diela beragaz aritzeak".

Iturraspe eta Boveda Abadiñoari laguntzen

Kromoen album banaketa babestu zuten



Ander Iturraspe eta Eneko Boveda Abadiño kirol elkarteko albumagaz.

> FUTBOLA

Abadiño kirol elkarteak jokalarien kromoak biltzeko albumak banatu zituen joan zen zapatuan, Astolan; Ander Iturraspe eta Eneko Boveda jokalariek babestu zuten ekimena.

Futbol eskolako eta futbol taldeetako gazteak hurreratu ziren Iturraspe eta Boveda zeuden mahaira, eta eurek sinatutako albumak jaso zituzten. Kromoak sei tokitan daude salgai: Durangoko Etxebarria liburu

dendan eta Txatxangorri janari dendan, Traña-Matienako Zure Dendan eta Petite liburu dendan, Muntzarazko Gozokarsen eta Astola zelaiko tabernan.

Abadiño-Zaldia derbia

Bihar, 16:00etan, Maila Goreneko derbia jokatu dute Abadiño eta Zaldia Astolan. Abadiño seigarren tokian eroso kokatuta dago; Zaldia, berriz, puntu bira du jaitsiera postua, eta puntuak behar ditu.

Berasaluze eta Loidi nagusi Berrizko finalean

IX. San Antonio Pilota Txapelketa irabazi dute

> PILOTA

Joan zen barikuan IX. San Antonio Pilota Txapelketako finalak jokatu zituzten Berrizko pilotalekuan. Lehenengo mailan Berasaluze IX.ak eta Loidik 18-14 irabazi zuten Perosanz eta Etxanizen aurka. Profesional ohiak diren Berasaluzek eta Perosanzek lehia polita eskani zuten aurrean. Bigarren mailako garaikurra Viguera eta Barrain-

kuak osatutako bikotearentzat izan zen, finalean Zaldia eta Guereña menderatu ostean: 18-10. Azkenik, hirugarren mailako finalean Berasaluze X.ak eta Troyak 18-6 menderatu zituzten Morales eta Uriarte.

Aurten 40 pilotarik parte hartu dute txapelketan: zortzina bikote aritu dira bigarren eta hirugarren mailan, eta lau bikote lehen mailan.

Zuazubiskar bosgarren Munduko Kopan, Kolonbian

Munduko Txapelketara sailkatzea lortu du

> PISTA

Joan zen asteburuan, Pistako Munduko Kopako hirugarren eta azken proba lehiatu zuten Kolonbiako Cali herrian. Illart Zuazubiskarrek taldekako jazarpen proban parte hartu zuen, Asier Maeztu, Sebastian

Mora eta Eloy Teruelegaz, eta bosgarren amaitu zuen. Gainera, Espainiako selekzioa sailkatu zuten otsailaren 18tik 22ra Parisen jokatu den Munduko Txapelketarako. Kolokan zuten munduko txapelketarako sailkapena ziurtatzea zen hel-

ADITUAREN TXOKOA



Oihana Azkorbebeitia

Mendi lasterketen EHko selekzioako hautatzailea

Amatasuna eta kirola

Gizonekin alderatuta emakumea nahiko berandu hasi da kirol munduan. Antzinatek emakumearen zeregin eta betebeharrak familiari eta etxeari oso lotuta egon dira, eta urte askoan ezinezkoa izan da *karga* horiek kirolarekin uztartzea. Zorionez, denbora ez da alferrik igaro, eta, gaur egun, kirolari dagokionez, apurka bada ere, parekotasunera hurbiltzen ari gara gizon-emakumeok. Hala ere, beti daude ezberdintasunak eta, zoritxarrez, mugak.

Kirolari profesionali dagokionez, gizon zein emakume izan, kirolerako denbora tarte handi samarra behar dute ahalik eta sasoirik onena lortzeko. Eta honetan, amatasunak zeresan handia du emakumeengan, muga handia baita. Bederatzi hilabeteko haurdunaldia, erditzea bera, eta erditzearen ostean errekupeartzeko behar diren egun, aste edo hilabeteak. Ez da aldi baterako *atsedena* bakarrik. Gorputzak aldaketa handia jasaten du, eta buruak beste hainbeste. Aitatasuna ere kontuan hartzekoa da, baina, azken finean, emakumea da haurra izan duena eta gorputzean aldaketak izan dituen.

Hala ere, bizimodua eta lehenetsunak aldatzen badira ere, amatasuna ez da ezinbesteko eragozpena emakumearen kirol ibilbideari azkena emateko. Emakume asko bueltatu dira berriz ere kirol profesionalera ama izan eta gero, eta sasoi betean, gainera. Mendiko lasterketei dagokionez, aipatzekoa Oihana Kortazarren kasua, bigarren semea izan eta gero bere betiko mailan bueltatu baita lasterketetara.

buru nagusietako bat. Izan ere, Munduko Kopako lehen proban zazpigarren izan ziren, baina bigarrenaren eskas ibili eta hemezazgarren amaitu zuten. Kolonbiako azken proban Frantziako eta Belgikako selekzioen aurretik amaitu behar zuten, eta lortu zuten. Hilaren 29tik otsailaren 1era Zuazubiskar errepidean ibiliko da, Mallorcako Challenge-an, baina prestaketa munduko txapelketara bideraturik du. Laster jakinaraziko dute hautatuen zerrenda.

NERABEZAROA

Pertsona helduek, hainbatean, nerabeen gaitasunei buruz gutxiespena eta destaina besterik ez dute azaltzen. Helduek hainbat arlotan [maitasuna, lidergoa, sexua, diruaren kudeaketa, lanaren garapena, hezkuntza, trebetasun fisikoak, erantzukizunenganako portaera, heziketa, herritartasuna, trebakuntza matematikoa etab.] erabateko gaitasunaz jantzita daudela suposatzen da, errealitate gordinera begiratu gero horrela beti izaten ez den arren.

Urteen joanean hainbat pertsona helduren jarrerak ikusi eta pentsamenduak entzun eta azterketa ugari egiteko aukera izatetik ondorio bakar batera besterik ezin iritsi gaitzke: helduak ez dituzte nerabeek estimatzen.

Horren eragile, helduek nerabeei eta nerabezaroari buruz agertzen duten aburu desegoki eta aurreiritzi ugariak dira. Ondorioz hauxe esan dezakegu: helduek gutxietsi egiten dituzte nerabeek.

Adierazitako baieztapen hori helduei emandako zerrenda baten azaldutako hogeita lau ekintza desberdinetatik nerabeek zenbat egiteko gai izango lirakeen galdetzeraz zatorren inkesta egin ondorengo erantzunetan [batz beste, 11] oinarritzen da. Ikus daitekeenez, batz beste emaitza horrek nerabeengan gaitasun gutxi eta konfiantza are gutxiago adierazten digu.

Helduek ez die nerabeei euren gaitasunak erakutsi eta azaltzeko aukera handiegirik ematen. Egun heldu diren hainbatentzako jarduerak egokitu, landu eta antzaldutako beharrik izango lukete, nerabeen egoerei erantzuteko desegokiak diren arau, neurri eta oldozmenetan oinarrituta baitaude. Horrela, egungo gizartean, nerabeen etengabeko mundu aldakorrera hurbildu, euren egoera ulertu eta lagungarri izateko ez dira, hainbatetan, jarraibide horiek egokienak izaten.

Helduak sarritan dihardute debekua nerabeengan ezarritik. Nerabeek euren dagozkien erantzukizunak direnetan helduek euren jarritako itxaropenak lortzen ez dituztenetan, nagusiak euren legea jartzen dute gauzak hobera egingo dutenaren gogo eta asmoz: debekuak eta zigorrak jarri. Bide motza.

Nerabeek euren energiaren zati handi bat behar baino gehiagotan helduak ezarritako debeku edota zigorrak gaintzen erabili behar izaten dute.

Erabakiak zutabe bitan oinarritzen dira: motibazioa eta borondatea

Nerabezaroak burmuinaren garapenean aldaketa izugarriak dakartza

Nerabeek oldozmen maila bikaina izateko gaitasuna dute, ahalegin gogorrek egiteko gai dira, esfortzua jasateko erabateko gaitasuna eta sortze-ahalmen handia dute eta, bereziki, erantzukizun jarraitu eta euren gain betebeharrak hartzeko erabateko gaitasuna dute. Baina horretarako bidea utzi behar zaie, zereginak garatu eta burutzeko gai diren erakusten utzi behar diegu, hori baita euren konfiantza sendotu eta finkatzeko biderik egoki eta zuzenena.

Nerabezaroa oso aro aldakorra da. Aldaketak ez du zertan txarrak izan behar. Nerabezaroa izan daiteke bideratu ezinezko krisialdi garaia, erantzukizun ezaren garaia, arriskua dakarten jardueren garaia. Baina alderantzizkoa ere izan daiteke. Eta hein handi baten onerako jarduerak garatzen dira nerabezaroan.

Nerabezaroan erantzukizunak era mailakatuan eskualdatu egiten dira eta, bestalde, harreman-banaketa desberdinak ere garatzen dira. Gurasoen helbururik handiena nerabezaroan dituzten seme edo alabak aro horretatik irteetan euren kasa aritu, erabateko autonomia jardun eta munduan zehar ibiltzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta adimena garatzea dela gogoan izan behar dute.

Aro erabakigarria, sormenezko eta indartsu bezala ikusi eta aldarrikatu behar dugu nerabezaroa. Nerabeei laguntza eskaini behar zaie euren nortasunaren udaberrian. Ikasbiderako aukera hobezinak azaltzen dira eta, ondorioz, nahitaezko aro erabakigarria dugu nerabezaroa.

Indargune berriei jabetu, gabeziak ordeztu, egitasmoak garatu, ekintzak egikaritu, esparru berriak ikertu, bizipen ahaztezinak izan, errealitate desberdinetan murgildu, heldurak saihestu, erantzukizun jarraitu eta zentzuz ekiten ikasteko garaia da. Baina horretarako aukerak eman behar zaizkie gazteei erratuko direnaren jakitun izanez, errakuntza bera ikasbide izaten baita hurrengoan hobeto jarduteko.

Gizakiok bizi garen mundua errealitatearen eta aukeren nahasketa besterik ez da. Laburbiltzeko: egun garena eta etorkizunean izan gaitzkeena. Helduek, nerabeei iragarri eta irakatsi behar dien mezu garrantzitsuetariko bat hau da: garena eta izan gaitzkeena besterik ez gara.

Nerabezarora iristek nagusi aginte esparruko zeregin batzuk nerabeen esku uzten hastea dakar. Seme/alaben esparrutik at egon den eta une jakin batera arte nagusiena besterik izan ez den aginte esparrua nerabeengana bideratzen hasten da.

Nerabezaroak diziplinatik autodiziplinarako jauzia dakar, besteen esanak betez jardutetik erantzukizun jarraitu [norbere erabaki eta dagozkion ondorioak hartzeko gertu izan] aritzea, hirugarrenek hartutako era-

bakiak bete behar izatetik norbere erabakiak hartzen hastea dakar.

Sarritan nerabeek etiketatu egiten ditugu eta, ondorioz, ez zaie inolako gaitasunik aitortzen gaitasun handien jabe diren arren. Nerabeek garatze prozesuan ari dira. Diodanaren harira orain denboratxo dela mutil bati bere elastikoan ikusi nion esaldia: “Eraikuntza prozesuan ari naiz. Barkatu eragozpenak”. Nerabe bakoitza bakarra dugu, eta ondorioz, hegoak eman behar dizkiegu nahitaez jasan eta gaintutako duten garapena ezin hobea izan dezaten.

Askotan nerabeek haur txikiak balira bezala tratatzen dira, ez heldu gisa. Gurasoengandik jasotzen duten berealdiko arduren ondorioz euren nortasuna endekatu egiten da. Beraz, nerabeek nagusi izateko bidean direnez, nagusi bezala tratatu behar dira.

Bestalde, gurasoen erantzukizuna da nerabeei benetako erantzukizunak bereganatzen laguntzea, baina ez da horrela gertatzen. Hainbatetan gurasoek euren seme nerabe direnei erantzukizun jarraitu eta garapen pertsonal egokirako bideak erakutsi beharrean kontrol-jarduerak ezartzen dituzte.

Nerabeei arretaz entzun behar diegu, euren bizipenak erabat garrantzitsuak baitira. Euskarria, sostengua eta elkartasuna behar dute. Arduratu gaitzen, beraz, seme/alaben gaitasunak ezeze nagusiok geure ditugun gaitasun eta ahalmenak ere ondo ezagutu ahal izateko bideak jorratzen. Ez da bide erraza baina bai lehenbailehen garatu beharrezkoa. Ahaikatu dezagun nerabeen inteligentzia, horrela baino ez baikara euren gaitasun eta baliabideez jabetuko.

Nerabesunak bihotzak ere ukitzen ditu eta bihotzaren kontuak ez dira arrazoiak ezagun izaten dituenetarikoak. Beraz nerabeen sentimendu erromantikoei ere laguntza eskaini eta aintzat hartzeaz gain egoera horienganako begirunea azaldu behar diegu. Errealitatean ez da horrelakorik gertatzen

eta nerabeek euren egonezin, barne sentimenduek sorrarazitako egoerek, gurasoenganako eta gurasoengandiko konfiantza handiegirik eza etab., euren barnean sustraitzen baitira bateren batek noizbait ateratzen laguntzeko zain.

Nerabeek, zalantza izpirik gabe, indargune asko dituzte, gauza on asko egiten dakie eta euren arlo horietaz ezer gutxi eta gutxitan ezer aipatu edota hitz egiteko aukera ematen diegu.

Askotan, nerabeekin gurasoek izaten duten autu bakarria ikasketen ingurukoa izaten da gurasoek euren itxaropen, ardura eta zoriona arlo horretan lehenetsi eta ezartzen baitituzte, hori baita, gurasoentzako, euren seme-alabek egin behar duten lan eta erantzukizunik garrantzitsu eta behinena. Baina dena ez dira ikasketak. Ikasketak bezain garrantzitsuak diren beste arlo asko ere badaude eta nerabeen indargune direnei buruz hitz egitea ere beharrezkoa baino ezinbestekoa izaten da. Berezkoak dituzten indarguneak sustatu egin behar dizkiegu, euren sormenerako gaitasunak ere azaleratu eta garatzeko aukerak eskaini eta sustatuz.

